



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 – 01476 ARESPALDITZA-AIARA

(ARABA)

Teléfono: 945399013 Fax: 945399331

Email: info@aiarakoudala.eus

www.aiarakoudala.eus

UDALBURUA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

AIARAKO UDALAK 2019ko MAIATZAREN 23an EGINIKO OHIKO BILKURA

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera
jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Josu Artetxe Arana jn.

Nerea Goti Valle and.

Lauren Uria Peña jn.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente Blanco
and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretzi maiatzaren hogeita hiru, hemeretziak eta bi minutu direnean, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA:

M^a. del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe **EGUNEKO AZTERGAIEN ZERREND**ako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2019ko apirilaren 30ean eginiko ohiko bilkuraren akta.

Nerea Goitu Valle andreak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta adierazi du aktaren amaieran zerajasotzen dela: “*AIARA BATUZ taldearekiko gertutasun falta, beste bi talde politikoen planteamenduetan oinarritzko ezberdintasunak ez zeudela uste izanaren ondorio da*”; baina egunerokotasunean bi taldeen artean sintonia totala zegoela esan izana baieztatu du berak.

Hitz-hartzeak amaituta, zinegotziaren oharrarekin, akta hori aho batez onartu da.

2.- 2020-2021 Obren eta Zerbitzuen Foru Plana.- Oinarri arautzaileen onespeneren berri eman zaio batzordeari, baita 2020-2021 aldirako Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez, Arabako Lurralde Hitorikoko Tokiko Erakundeentzako laguntza ildoaren deialdiaren berri ere, 22/2019 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9koa, 2019ko apirilaren 10eko Arabako Lurralde Historikoko 44 Aldizkari Ofizialean argitaratua. Eskaera epea 2019ko ekainaren 10ean amaitzen da, 23:59an.

Halaber, jakinarazten da deialdiari honako bi obra hauekin helduko zaiola:

- Berogailu, ur bero sanitarioa eta Aireztapen Sistema hobetzeko proiektua, Zuatzako 2 poligonoko 592 partzelan.
- Erabilera anitzeko espazioen egokitzapena, Luiaondoko La Torre kaleko 17 zenbakian.

Iraida Saenz de LaFuente Blanco andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, eta adierazi du aspaldiko beharra dela ikastolako berogailuarena, eta egokia deritzola berogailu sistema eraginkorrago bat jartzea. “Casa Patxita”-ri dagokionez, bere planteamendua, lehenengo solairuan

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Herritarren Arreta Zerbitzua ezartzea litzatekela adierazi du, nahiz eta Foru Planaren araudira egokitzeko derrigorrezkoa izan esku-hartzea termino hauetan planteatzea, ez baitzen erabilera administratiboa onartzen.

Alkate jaunak, Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) adierazi du batzordean azaldu zela mota honetako esku-hartzeak proposatzearen zergatia, etorkizuneko erabilerak baldintzatuko ez dituen birgaitze planteamendu batekin; eta hauteskundeetan irtendako Udalbatza berriak erabakiko ditu erabilera mota berriak.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta adierazi du presaka egiten ari direla, beharrezko obrak direla deritzon arren. Ikastolako obrari dagokionez, balio handiegia ematen ari zaiola iruditzen zaio proiektuan agertzen den aurrekontuari erreparatuta, nahiz eta iritzi bat baino ez den, eta segimendu bategin beharko zaion. “Casa Pantxita”-ren obrari dagokionez, egokia deritzo, bi solairuei erabilera emateko aukera baita, baina iruditzen zaio piska bat atzeratuta dagoela eta gehiago zehaztu beharko litzatekela.

Alkate jaunak, Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) Ikastolako berogailua hobetzeko proiektua 2017ko Batzorde batean eztabaidatu zela adierazi du eta horrenbestez, zinegotziek, proiektuaren berri izan zutela data horretan. “Casa Patxita”-ri dagokionez, hori ere Batzorde batean azaldu zen duela bi urte. Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) aipatu dituen presei dagokionez, Foru Planak zehaztuak direla esan du, eta beste urteetan bezala jardun dela. Berogailuaren obraren kostua dela eta, adierazi du ez dela berogailua bakarrik ordezkatzeko, sistema osoa, hoditeriak, erradiadoreak, galdarak etab. aldatzea dakarrela; dena den, proiektuaren segimendua egingo da.

Hitz-hartzeak amaituta, erabaki da, aho batez, ohiko bozketaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeentzako laguntza ildoetara konkurritzea 2020-2021 aldirako Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez, Foru Aldundiaren Batzordeko apirilaren 9ko 22/2019 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko 44 Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2019ko apirilaren 10ean, honako bi obra hauekin:

Oinarri arautzaileen onespeneren berri eman zaio udalbatzari, eta, 2020-2021 aldirako Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez, Arabako Lurralde Hitorikoko Tokiko Erakundeentzako laguntza ildoaren deialdiaren berri. 22/2019 Foru Dekretua, Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9koa, 2019ko apirilaren 10eko Arabako Lurralde Historikoko 44 Aldizkari Ofizialean argitaratua.

- Berogailu, ur bero sanitarioa eta Aireztapen Sistema hobetzeko proiektua, Zuatzako 2 poligonoko 592 partzelan.
- Erabilera anitzeko espazioen egokitzapena, Luiandoko La Torre kaleko 17 zenbakian

3.- Udalkideek aurkeztu beharreko ondare-ondasunen, bateraezintasunen eta jardueren aitorten eredia.-

Jarraian, Batzordeari jakinarazi zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko, Tokiko Araudiaren Oinarriak arautzen dituen, 75.7. artikuluan ezarriari jarraikiz, udaleko ordezkariak, kargua hartu aurretik, kargua uzteko aukerarekin eta agintaldiaren amaieran, baita egoera aldatzen denean ere, bateraezintasun posibleko zergatien gaineko aitortpena egingo dutela. Halaber, diru-sarrerak bermatzen dizkein edo bermatu ahal dizkien edozein jardueraren gaineko aitortpena eta ondare-ondasunen aitortpena ere egingo dute, dagozkien udalbatza osoek onetsitako ereduetan.

Jakinaren gainean geratu da Udalbatza eta adostu du, aho batez, ohiko bozketaren bidez, Ondare ondasunen, Elkartean partaidetza eta Zergei buruzko adierazpen ereduak, eta bateraezintasun eta jardueren aitorten eredia onestea:

ONDARE ONDASUNEN.
ELKARTEETAN PARTAIDETZA ETA
ZERGEI BURUZKO ADIERAZPENA.

DECLARACIÓN DE BIENES
PATRIMONIALES, PARTICIPACIÓN EN
SOCIEDADES E INFORMACIÓN IMPOSITIVA.

1. AITORTZAILEA / DECLARANTE:

| | |
|--|---|
| <u>Izen-deiturak:</u> | <u>Nombre y apellidos:</u> |
| <u>Telefonoak:</u> | <u>Teléfonos:</u> |
| <u>Egoitza:</u> | <u>Domicilio:</u> |
| <u>Udalerria:</u> | <u>Municipio:</u> |
| <u>Probintzia:</u> | <u>Provincia:</u> |

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.7 artikuluan xedetutakoa betetzez, zein Udalbatza honek 2019ko, maiatzaren an egin zuen Osoko Bilkuran hartutako erabakiarekin bat, gorago bere nortasunari buruzko datuak azaltzen den Zinegotziak ondorengo aitortpena formulatu du Ondasun eta Elkarteren Partaidetzari buruz, eta adierazi du, bere erantzukizunpean, azaldu dituen datu guztiak ziurrak eta benetakoak direla.

En cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, así como de conformidad con lo acordado por este Ayuntamiento en su sesión plenaria de mayo de 2019, el Concejal cuyos datos de identidad arriba se consignan, formula a continuación declaración sobre Bienes y Participación en Sociedades y manifiesta, bajo su responsabilidad, que los datos que expone son rigurosamente ciertos.

2.- ONDASUNAK / BIENES:

| | |
|---|--|
| A).-Hiri higiezinak: deskribapena, kokaera eta inskripzio erregistralaren zenbakia. .-Inmuebles urbanos: descripción, situación y número de inscripción registral. | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
| - | - |

| | |
|---------------------|---------------------|
| - | - |
| - | - |
| - | - |

| B).-Landa higiezinak: deskribapena, kokaera eta inskripzio erregistralaren zenbakia. .-Inmuebles rústicos: descripción, situación y número de inscripción registral. | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
|---|--|
| - | - |
| - | - |
| - | - |
| - | - |

| C-1).-Balore higigarriak: Tituluak (kopuruak eta entitate jaulkitzailea). .-Valores mobiliarios: Títulos (número y entidad emisora): | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
|---|--|
| - | - |
| - | - |
| - | - |
| - | - |

| | |
|--|--|
| C-2).-Balore higigarriak: Kapital sozialeko partaidetzak (parte hartzen deneko sozietatea eta portzentaia). .-Valores mobiliarios: Participaciones en capital social (Sociedad en la que se participa y porcentaje): | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
| - | - |
| - | - |
| - | - |
| - | - |

| | |
|--|--|
| D).-Gordailuak, ziurtagiriak eta bizi aseguruak: Entitate gordailuzaina. .-Depósitos, certificados y seguros de vida: Entidad depositaria. | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
| - | - |
| - | - |
| - | - |
| - | - |

| | |
|---|--|
| E).-Etxeko altzariak edo ostilamendua: nagusien zerrenda (balio artistiko handia dutenena batik bat). .-Muebles o ajuar doméstico: enumeración de los principales (fundamentalmente los de gran valor artístico). | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
| - | - |
| - | - |
| - | - |
| - | - |

| | |
|---|--|
| F).-Ibilgailuak edo itsasontziak: Marka, modeloa eta matrikula. .-Vehículos o embarcaciones: Marca, modelo y matrícula. | Eskuratze data: Fecha de adquisición: |
| - | - |
| - | - |

| | |
|-------|-------|
| - | - |
| | |
| - | - |
| | |

3.- ELKARTEREN PARTAIDETZA/ PARTICIPACIÓN EN SOCIEDADES:

| A).-Elkartearen izena eta partaidetza (Beste Elkartean adierazitako Elkarteen partaidetza barne) Denominación de la Sociedad y número de participaciones (se incluyen participaciones de éstas en otras Sociedades) | Eskuratzeko data: Fecha de adquisición: |
|--|--|
| - | - |
| | |
| - | - |
| | |
| - | - |
| | |
| - | - |
| | |

4.- LIQUIDACIONES DE IMPUESTOS SOBRE LA RENTA, PATRIMONIO Y SOCIEDADES/ ELKARTE, OGASUN ETA ERRENTA ZERGAREN KITAPENAK.

| | |
|---|--|
| <p>Hurrengo dokumentazioa aurkeztu egiten da (honekin Adierazpenarekin batera doan konpultzaturiko fotokopia):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona Fisikoen Errenta Gaineko Zerga • Ondasun Gaineko Zerga • Elkarte Gaineko Zerga <p>(Dagokiona borobildu)</p> | <p>Se aporta la siguiente documentación (fotocopia compulsada por la Secretaria General incorporada a la presente declaración):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. • Impuesto sobre el Patrimonio • Impuesto de Sociedades <p>(Rodear con un círculo lo que proceda)</p> |
|---|--|

Idazkari Orokorra naizen honen aurrean egina, 2019 ekoaren
.....(e)an.

Hecho ante mí, la Secretaria General, el día de de 2019

| | | |
|--|---|-------|
| BATERAEZINTASUN ARRAZOIEN ETA JARDUEREN AITORPENA. | DECLARACIÓN INCOMPATIBILIDADES Y ACTIVIDADES. | DE DE |
|--|---|-------|

1. AITORTZAILEA / DECLARANTE:

| | |
|---|---|
| <u>Izen-deiturak:</u> | <u>Nombre y apellidos:</u> |
| <u>Telefonoak:</u> | <u>Teléfonos:</u> |
| <u>Egoitza:</u> | <u>Domicilio:</u> |
| <u>Udalerria:</u> | <u>Municipio:</u> |
| <u>Probintzia:</u> | <u>Provincia:</u> |
| <p>Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75.7 artikuluan xedetutakoa betetzez, zein Udalbatza honek 2019ko, maiatzaren egin zuen Osoko Bilkuran hartutako erabakiarekin bat, gorago bere nortasunari buruzko datuak azaltzen den Zinegotziak ongorengo aitortpena formulatu du bateraezintaneko kausei buruz eta burutzen jardueren ganean, eta adierazi du, bere erantzukizunpean, azaldu dituen datu guztiak ziurrak eta benetakoak direla.</p> | <p>En cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, así como de conformidad con lo acordado por este Ayuntamiento en su sesión plenaria de de mayo de 2019, el Concejal cuyos datos de identidad arriba se consignan, formula a continuación declaración sobre causas de incompatibilidad y actividades, y manifiesta, bajo su responsabilidad, que los datos que expone son rigurosamente ciertos.</p> |

2.- FORMULATZEN DUEN INTERES AITORPENA: DECLARACIÓN DE INTERESES QUE FORMULA:

| | |
|---|---|
| A.- Bateriaezintasun arrazoiak (aipa ezazu dagokionean gaineratzen den koadroaren arabera dagokienez). | A.- Causas de incompatibilidad (cítese, en su caso la que corresponda con arreglo al cuadro que se adjunta). |
| - | |
| - | |

| | |
|---|--|
| <p>B.- Jarduerak, zereginak eta besteren konturako lanak (izena edo sozietate izena eta eremua eta, dagokionean, kargua edo enplegua adieraziz).</p> <p>a) Lanbide, merkatal edo industri jarduerak nahiz zereginak:</p> <p>-</p> <p>b) Besteren konturako lanak:</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>c) Sarrera pribatuen bestelako iturriak:</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>Sarrerarik eman gabe, Korporazionaren eskuduntza eremua uki dezaten edo beronekin zerikusirik izan dezaten bestelako jardura edo interes pribatuak:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Idazkari naizen honen aurrean egina, 2001koaren(e)an.</p> <p>Aitortzaileak</p> | <p>B.- Actividades, ocupaciones y trabajos por cuenta ajena (con expresión de su nombre o razón social y ámbito y, en su caso, el cargo o empleo).</p> <p>a) Actividades u ocupaciones profesionales, mercantiles o industriales:</p> <p>-</p> <p>b) Trabajos por cuenta ajena:</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>c) Otras fuentes de ingresos privados:</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>Otras actividades o intereses privados que, sin proporcionar ingresos, afecten o estén en relación con el ámbito de competencias de la Corporación:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Hecho ante mí, la Secretaria General, el día de de 2019.</p> <p>El declarante</p> |
|---|--|

KOADROA (HEOLOren 6 eta 178.1ºart.)

BATERAEZINTASUN ARRAZOIAK
(HEOLOren 6. art.):

Ondoko arrazoiren batean sartura egotea:

- a) Espainiako Errege Familiako kideak, azaroaren 27ko 2917/1981 Errege Dekretuak erregulatzen duen Erregistro Zibilean barne hartuta daudenak, bai eta berauen ezkontideak ere.
- b) Auzitegi Konstituzionaleko, Estatu Kontseiluaren

CUADRO (Art. 6 y 178.1º LOREG)

CAUSAS DE INCOMPATIBILIDAD
(art. 6 LOREG):

Estar incurso en algunas de las siguientes causas:

- a. Los miembros de la Familia Real Española incluidos en el Registro Civil que regula el Real Decreto 2917/1981, de 27 de noviembre, así como sus cónyuges.
- b. Presidentes del Tribunal Constitucional, del Tribunal Supremo del Consejo de Estado, del

Auzitegi Goreneko, Kontu Auzitegiko eta Konstituzioaren 131.2 artikuluan aipatzen den Kontseiluko Lehendakariak.

- c) Auzitegi Konstituzionaleko Magistratuak, botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Mahaikideak, Estatu Kontseiluko Kontseilari Iraunkorrek eta Kontu Auzitegiko Kontseilariak.
- d) Herriaren Defendatzailea eta bere Laguntzaileak.
- e) Estatuaren Fiskal Nagusia.
- f) Ministrarritza Departamentuetako Idazkariordeak, Idazkaria nagusiak, Zuzendari Nagusiak eta hauen parekoak; bereziki Gobernuaren Lehendakartzako Kabinetearen Departamentuetako Zuzendariak eta Ministrarien eta Estatuko Idazkarien Kabineteetako Zuzendariak.
- g) Atzerriko Estatu edo nazioarteko organismoren baten aurrean egoiliar gisa kreditaturiko Misioburuak.
- h) Aktibo egoeran egon daitezzen Magistratu, Epaile eta Fiskalak.
- i) Militar profesionalak eta konplementuzkoak eta Segurtasun eta Polizia Kidego eta Indarretako kideak, aktiboan daudenak.
- j) Hauteskunde Batzordeetako Lehendakari, Mahaikide eta Idazkariak.
- k) Autonomi Elkartetako Gobernuaren Ordezkariek eta herrialde eskuduntza desberdina duten antzeko agintariak.
- l) RTVEko Zuzendari nagusia eta Ente Publiko honen Sozietateetako Zuzendariak.
- m) Herrialde nazional osoan eskuduntzarik duten estatuko entitate autonomoetako Lehendakariak, Zuzendariak eta kargu asimilatutakoak, bai eta hauetako Gobernuaren Ordezkariek ere.
- n) Herrialde nazional osoan eskuduntzarik duten Gizarte Segurantzaren Entitate Gestoreetako Lehendakariak eta Zuzendari nagusiak.
- o) Hauteskunde Zentsuaren Bulegoko Zuzendaria.
- p) Banco de España-ko Gobernadorea eta Gobernadoreordea eta Kreditu Ofizialaren Institutuko eta gainerako kreditu entitate ofizialetako Lehendakariak eta Zuzendariak.
- q) Segurtasun Nuklearrerako Kontseilu Nagusiko Lehendakaria, Kontseilariak eta Idazkari nagusia.
- r) Epaitza irmoaren indarrez pena askatasun kentzailerako kondenatutakoak, penak dirauen aldiaren zehar.
- s) Epai bidez (nahiz eta irmoa ez izan) kondenatu dituzten pertsonak, baldin eta Herri Administrazioaren aurkako edo Estatuko

Tribunal de Cuentas y del Consejo a que hace referencia el artículo 131.2 de la Constitución.

- c. Magistrados del Tribunal Constitucional, los Vocales del Consejo General del Poder Judicial, los Consejeros Permanentes del Consejo de Estado y los Consejeros del Tribunal de Cuentas.
- d. Defensor del Pueblo y sus adjuntos.
- e. Fiscal General del Estado.
- f. Subsecretarios. Secretarios Generales, Directores Generales de los Departamentos Ministeriales y los equiparados a ellos, en particular los Directores de los Departamentos del Gabinete de la Presidencia del Gobierno y los Directores de los Gabinetes de los Ministros y de los Secretarios de Estado.
- g. Jefes de Misión acreditados, con carácter de residentes, ante un Estado Extranjero u organismo internacional.
- h. Magistrados, Jueces y Fiscales que se hallen en situación de activo.
- i. Militares profesionales y de complemento y miembros de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y Policía, en activo.
- j. Presidentes, Vocales y Secretarios de las Juntas Electorales.
- k. Delegados del Gobierno en las Comunidades Autónomas y las autoridades similares con distinta competencia territorial.
- l. Director general de RTVE y los Directores de las Sociedades de este Ente Público.
- m. Presidentes, Directores y cargos asimilados de las entidades estatales autónomas con competencia en todo el territorio nacional, así como los Delegados del Gobierno en las mismas.
- n. Presidentes y Directores generales de las Entidades Gestoras de la Seguridad Social con competencia en todo el territorio nacional.
- o. El Director de la Oficina del Censo Electoral.
- p. El Gobernador y Subgobernador del Banco de España y los Presidentes y Directores del Instituto de Crédito Oficial y de las demás entidades oficiales de crédito.
- q. El Presidente, los Consejeros y el Secretario del Consejo General de Seguridad Nuclear.
- r. Los condenados por Sentencia firme, a pena privativa de libertad, en el periodo que dure la pena.
- s. Los condenados por sentencia, aunque no sea firme, por delitos de rebelión, de terrorismo, contra la Administración Pública o contra las instituciones del Estado cuando la misma haya establecido la pena de inhabilitación para el ejercicio del derecho de sufragio pasivo o la de inhabilitación absoluta o

erakundeen aurkako matxinada edo terrorismo delitua gertatu bada, eta epaiak hautatua izateko desgaiuntza-zigorra edo enplegu edo kargu publikoa betetzeko erabateko desgaiuntza edo desgaiuntza berezia eskatzen duen zigorra jarri badu, zigor arloko legedian aurreikusten den moduan (urtarrilaren 28ko 3/2011 Lege Organikoak emandako idazketa).

t) Ministraritzan bakoitzean estatukoaren beheagoko herrialde mugape desberdinetan mailarik handieneko funtzioa bete dezana.

u) Herrialde eskuduntza mugatuko Autonomi Elkartetako Lehendakariak, Zuzendariak eta kargu asimilatutakoak, bai eta berauetako Gobernuaren Ordezkariek ere.

v) RTVEko herrialde Ordezkariek eta Autonomi Elkarten menpeko Irrati-Telebista Entitateetako Zuzendariak.

w) Gizarte Segurantzaren Entitate Gestoreen organo periferikoetako Lehendakari eta Zuzendariak.

x) Gobernuaren Ordezkarietako eta Gobernu Zibiletako Idazkari nagusiak.

y) Hauteskunde Zentsuaren Bulegoko Ordezkariek probintzialak.

z) Dena den, hauteskundeak izan eta gero epai irmo bidez legez kanpo utzitako alderdi edo alderdien federazio edo koalizioek aurkeztutako zerrendetan hautatutakoek bateraezintasuna izango dute; eta beste horrenbeste gertatuko da epai irmo bidez, legez kanpo utzitako alderdi bati loturik daudela jotako hautesle-taldeek aurkeztutako zerrendetatik hautatutakoekin. Bateraezintasuna hamabost egun natural igarotakoan sartuko da indarrean, hain zuzen ere, Hauteskunde Administrazioak interesatuari bateraezintasunaren arrazoia zein den jakinarazten dionetik zenbatzen hasita. Bateraezintasuna indarrean ez sartzeko salbuespena izango da pertsona horrek, bere borondatez, administrazio horretan berriaz eta zalantzarik gabe adieraztea bera hautatu duen alderdi politikoa edo federazio edo koalizio alderdia legez kanpo uzteko arrazoietatik bereizten dela; edo, hala badagokio, pertsona hori hautatu duten hautesleei lotuta dagoen alderdia. Adierazpen horren ondorengo agintaldian zehar, edukiari dagokionez eta edozein bitarteko erabiliz, hautatutako pertsonak atzera egingo balu edo bere ekintza, ez-egite edo adierazpenen bidez kontraesanak erakutsiko balitu, idatz-zati honek arautzen duen bateraezintasuna behin betikoa izango da. Bateraezintasuna Hauteskunde Administrazioak, Gobernuak hala eskatuta eta Estatu Abokatutzaren edo Fiskaltzaren bidez, jakinarazten duen unean sartuko da indarrean. Halaber, bateraezintasun-erregimen berbera aplikatuko zaie hutsik geratutako aulkia betetzeko deia egin zaien eta legez kanpo utzi diren formazio politikoko zerrendetako hautagaiei, ordezkoak barne (urtarrilaren 28ko

especial o de suspensión para empleo o cargo público en los términos previstos en la legislación penal. (redacción dada por la Ley Orgánica 3/2011 del 28 de enero).

t. Quien ejerza la función de mayor nivel de cada Ministerio en las distintas demarcaciones territoriales de ámbito inferior al estatal.

u. Los Presidentes, Directores y cargos asimilados de Entidades Autónomas de competencia territorial limitada, así como los Delegados del Gobierno en las mismas.

v. Los Delegados territoriales de RTVE y los Directores de las Entidades de Radiotelevisión dependientes de las Comunidades Autónomas.

w. Los Presidentes y Directores de los órganos periféricos de las Entidades Gestoras de la Seguridad Social.

x. Los Secretarios generales de las Delegaciones del Gobierno y de los Gobiernos Civiles.

y. Los Delegados provinciales de la Oficina del Censo Electoral

z. En todo caso, serán incompatibles las personas electas en candidaturas presentadas por partidos o por federaciones o coaliciones de partidos declarados ilegales con posterioridad por sentencia judicial firme, así como los electos en candidaturas presentadas por agrupaciones de electores declaradas vinculadas a un partido ilegalizado por resolución judicial firme. La incompatibilidad surgirá efecto en el plazo de quince días naturales, desde que la Administración electoral permanente comunique al interesado la causa de incompatibilidad, salvo que éste formule, voluntariamente, ante dicha Administración una declaración expresa e indubitada de separación y rechazo respecto de las causas determinante de la declaración de ilegalidad del partido político o del partido integrante de la federación o coalición en cuya candidatura hubiese resultado electo; o, en su caso, del partido al que se hubiera declarado vinculada la agrupación de electores en cuya candidatura hubiere resultado electo. Si durante el ejercicio del mandato al que haya accedido tras haber explicitado dicha declaración, la persona electa se retractase, por cualquier medio, de la misma o mostrara contradicción, a través de hechos, omisiones o manifestaciones, respecto de su contenido, quedará definitivamente incurso en la causa de incompatibilidad regulada en este apartado. La causa de incompatibilidad surtirá efecto a partir de la notificación realizada al efecto por la Administración Electoral permanente, por sí o a instancias del gobierno a través de

3/2011 Lege Organikoak gehitutako idatz-zatia).

- 2) **Udal Korporazio honen zuzeneko zorduna edo subsidiarioa izatea, Ebazpen Judizialaren bidezko premiamendu agindua luzatu delarik.**
- 3) **Ondoko baldintzaren bat betetzea (HEOLOren 178.2 art.):**
 - a) Alderdiak Korporazioaren aurkako prozedura judicial edo administratiboetan zuzendu edo ordezkatzeko dituzten Abokatu eta Prokuradoreak, Udal Erregimenaren Oinarriak Erregulatzen dituen Legearen (63.1.b) artikuluan aipatzen diren ekintzak salbu.
 - b) Hurrenez hurrenko Udaleko eta bere menpeko entitate edo establezimenduetako Zerbitzuetako Zuzendariak, funtzionarioak edo aktiboko gainerako langilegoa.
 - c) Udal mugartean diharduten Probintzi eta Udal Aurrezki Kutxetako Zuzendari nagusiak edo asimilatutak.
 - d) Udal Korporazioaren edo bere menpeko establezimenduen kargura erabat nahiz partez finantza daitezkeen kontratuen kontratistak edo azpikontratatistak.

la Abogacía del Estado o del Ministerio Fiscal El mismo régimen de incompatibilidad se aplicará a los integrantes de la candidatura de la formación política declarada ilegal que sean llamados a cubrir el escaño vacante, incluidos los suplentes. (Apartado añadido por la Ley Orgánica 3/2011 del 28 de enero)

- 2) **Ser deudor directo o subsidiario de esta Corporación Municipal, habiéndose expedido mandamiento de apremio por Resolución Judicial.**
- 3) **Ostentar alguna de las siguientes condiciones (art. 178.2 LOREG):**
 - a) Los Abogados y Procuradores que dirijan o representen a partes en procedimientos judiciales o administrativos contra la Corporación, con excepción de las acciones a que se refiere el artículo 63.1 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.
 - b) Los Directores de Servicios, funcionarios o restante personal en activo del respectivo Ayuntamiento y de las entidades establecimientos dependientes de él.
 - c) Los Directores generales o asimilados de las Cajas de Ahorro Provinciales y Locales que actúen en el término municipal.
 - d) Los contratistas o subcontratistas de contratos, cuya financiación total o parcial corre a cargo de la Corporación Municipal o de establecimientos de ella dependientes.

4.- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko irtenbideetara atxikitzea. Jarraian, Batzordeari jakinarazi zaio, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreekako Zuzendariak igorri digula Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko irtenbideen elkarren arteko zerbitzuaren hitzarmen baten testua. Honek Administrazio Elektronikoko Zerbitzuen Katalogoko irtenbide teknologikoetara atxikitzearen gainean dihardu. Hitzarmen horrek atxikitzeak aukera ematen dio Arabako udal orori.

Alkate jaunak hartu du hitza, Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV), eta adierazi du inork dokumentuaren edukiaren inguruko zalantza teknikorik badu, Administrazio Elektronikoaren garapena dela; adibidez, hiritarren beharrezko dokumentuak onartzeko administrazioen arteko interkonexioaz eskuratu ahal izatea, hauen ekarpena derrigorrezkoa izan gabe.

Iraida Senz de LaFuente Blanco andreak (AIARA BATUZ) azaldu du zenbait zalantza zituela, baina informatu egin dela eta dagoeneko konpondu dituela.

Esku-hartzeak amaituta, aho batez erabaki da, bozketa arruntaren bidez, atxikitzea Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien arteko administrazio elektronikoaren esparruko oinarritzko irtenbideen elkarren arteko zerbitzuaren hitzarmenera, Administrazio Elektronikoko Zerbitzuen Katalogoko irtenbide teknologikoetara atxikitzearen gainean diharduena.

5.- Honako hauen berri ematea: udal-zenbaketen aktak, gastuen eta sarreraren balantzea, libreten egoera eta 2019ko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kredituen aldaketak.- Jarraian, udal.zenbaketen akten berri, gastuen eta sarreraren balantzearen berri, libreten egoeraren berri eta 2019ko urtarril, otsail eta martxoko kredituen aldaketan berri eman zaio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6.-Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:- Jarraian, udalbatzari 2019/163 eta 2019/202 artean dauden Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, biak barne, eta horien helburua, laburbilduz, honako hau da:

2019/163 ALKATETZA DEKRETUA.- J.A.B.P.- Zuntz optikoa kanalizatzeko obren udal Lizentzia ematea.

2019/164 ALKATETZA DEKRETUA.- Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa- Luiaondoko partzelan ur-hargunea gauzatzeko obren udal Lizentzia ematea.

2019/165 ALKATETZA DEKRETUA.- EDP Comercializadora, S.A.U.- 2019ko lehen hiruhilekoari dagokion abonua eskatu zaio, gas eta elektrizitateari dagokiona.

2019/155 ALKATETZA DEKRETUA.- EDP Comercializadora, azken errekurtsokoa, S.A.- 2019ko lehen hiruhilekoko abonua eskatu zaio, gas eta elektrizitateko domeinu publikoaren erabilera probatuagatik.

2019/167 ALKATETZA DEKRETUA.- AUTOBUSES CUADRA, SA.- Baimena zabaltzea eskola garraio zerbitzua gauzatzeko Etxaurren Ikastolan, 2019-2020 ikasturtean.

2019/168 ALKATETZA DEKRETUA.- AFari Idazkari-kontu-hartzailearen posturako izendapena eskatzea M.C.R.P.ri Zerbitzuen Batzordearen bitartez.

2019/169 ALKATETZA DEKRETUA.- Ezkontza zibila gauzatzeko eskuduntzak I.P.U. zinegotziaren esku uztea.

2019/170 ALKATETZA DEKRETUA.- Telefónica Móviles España, SA – Añesen telefonia banagunerako obren lizentzia espedienteari dagokion dokumentua zabaltzeko eskatzea.

2019/171 ALKATETZA DEKRETUA.- Telefónica Móviles España, SA – Menoion telefonia bateragunerako obren lizentzia espedienteari dagokion dokumentua zabaltzeko eskatzea.

2019/172 ALKATETZA DEKRETUA.- F/2019/5 fakturen kontabilitateko zerrendaren onespina.

2019/173 ALKATETZA DEKRETUA.- Etxaurren Ikastola. Ekipo psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen nominen ordainketa, martxoa.

2019/174 ALKATETZA DEKRETUA.- Elkarkidetza Pentsioak. 2019ko apirilari dagokion fakturaren onespina.

2019/175 ALKATETZA DEKRETUA.- Udaleko langile eta alkatearen nominen hilabeteko txostena, 2019ko apirila.

2019/176 ALKATETZA DEKRETUA.- Ekarpen ekonomikoa talde politikoei, 2019ko apirila.

2019/177 ALKATETZA DEKRETUA.- A.U.G. – Aparkatzeko txartela berritzeko onarpina.

2019/178 ALKATETZA DEKRETUA.- R.M.Q. –Harresia birgaitzeko obretako eraikuntza- eta eraisketa-hondakinen kudeaketagatiko fidantza eskatzen da.

2019/179 ALKATETZA DEKRETUA.- Ekarpen ekonomikoa udalkideei, 2019ko apirila.

2019/180 ALKATETZA DEKRETUA.- B.B.B. eta B.S.O.- Zaharberitzearen espedientekohirigintza arauko 1. eta 2. zenbakiak ebazten, Murgako partzelan

2019/181 ALKATETZA DEKRETUA.- J.G.B. –Olabezarko partzelan egindako eta egiteko dauden obretarako lizentziaren legezketasunaren aitortpena.

2019/182 ALKATETZA DEKRETUA.- J.A.B.P.- Obretarako udal lizentzia emateaharritzko murruan juntura berriak jartzeko Arespalditzan.

2019/183 ALKATETZA DEKRETUA.- M.G.C. – Obretarako udal lizentzia ematea etxebizitzako sukaldea berritzeko Llantenenon.

2019/184 ALKATETZA DEKRETUA.- K.R.B. – Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lizentzia ematea.

2019/185 ALKATETZA DEKRETUA.- Viesgo Energía, SL- 2019ko 1. hiruhilekoko likidazioa, gas eta elektrizitate domeinu publikoaren okupazio tasa

2019/186 ALKATETZA DEKRETUA.- E.G.E. – Aparkatzeko Txartela berritzeko onarpena.

2019/187 ALKATETZA DEKRETUA.- R.M.M.I. –Fidantzaren abonua eskatu da, abeltzantza nabea eraikitzeke obren hondakinen kudeaketagatik.

2019/188 ALKATETZA DEKRETUA.- "OMNIA (OMNIA)" Talde Politikoa.- Leku publikoan megafoniaren bidez soinua igortzeko baimena ematea.

2019/189 ALKATETZA DEKRETUA.- A.T.G.- Espediente administratiboko informazio publikora sarbidea ematea.

2019/190 ALKATETZA DEKRETUA.- Luiaondoko Administrazio Batzarra eta Construcciones Ugarteko, S.L.- Otazu de Luiaondoko U.E.lean EDARen Jarduera Garapena onartzea.

2019/191 ALKATETZA DEKRETUA.- Construcciones Ugarteko, S.L.- Otazu de Luiaondoko U.E. leko urbanizazio obrak bermatzeko emandako banku-abala itzultzea.

2019/192 ALKATETZA DEKRETUA.- Luiaondoko Otazu Kaleko 1A, 1B, 3A eta 3B zenbakiko etxebizitzetan 1. Okupazioagatik Baimenaren emakida.

2019/193 ALKATETZA DEKRETUA.- Gizate Segurantzaren DN. 2019ko martxoko ekarpena.

2019/194 ALKATETZA DEKRETUA.- Asfaltados y Construcciones Morga, S.L.- Barrena kaleko aparkalekuaren obrarako kontratuaren esleipena, Luiaondo.

2019/195 ALKATETZA DEKRETUA.- Etxaurren Ikastola. Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzaileen nominen abonua, apirila.

2019/196 ALKATETZA DEKRETUA.- R.M.M.I.- Abeltzantza nabea egiteko obren udal lizentzia ematea.

2019/197 ALKATETZA DEKRETUA.- R.M.Q.- Hesia zahar-berritzeko obren udal lizentzia ematea.

2019/198 ALKATETZA DEKRETUA.- E.A.M.- Barrena kaleko (Luiaondo) aparkalekuko obrak zuzendu eta, segurtasun eta osasunaren koordinaziorako kontratuaren esleipena.

2019/199 ALKATETZA DEKRETUA.- 2019ko F/2019/6 fakturen kontabilitate-zerrendaren onepena.

2019/200 ALKATETZA DEKRETUA.- Onestea kreditu-gerakinaren gehitzea, herriko igerilekuetan espazio estalia instalatzeko obra proiektuari dagokiona.

2019/201 ALKATETZEA DEKRETUA.- Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U.- Costeran transformazio zentro berriko obren eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeaketagatik fidantza eskatzea.

2019/202 ALKATETZA DEKRETUA.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Obratarako udal lizentzia ematea Ibarrik Aspurrako errebidea konpontzeko.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza eta adierazi du 2019/168 dekretuari dagokionez, modu batera edo bestera, atzeraka doanaren irudipena duela, M.C.R.P.ri Zerbitzuen Batzordearen bitartez, AFari Idazkari-kontu-hartzailearen posturako izendapena eskatzeari dagokion dekretua. Adierazi du udala zenbait betebeharrak linguistikoki mantentzeko gaitasuna galtzen ari dela, eta eskaintza asko ez egotekotan, hausnartu beharreko gaia dela, postu garrantztsua baita.

Alkate jaunak, Gentza Alamillo Udaetak (EAJ-PNV) erantzun du ez dagoela eskaintzarik; adierazi du deialdi publiko bat egin zela, eta egungo idazkari-kontu-hartzaileak baino ez zuela parte hartu, ez dagoelako postua beteko duen beste pertsonarik, nazio mailan gaitutako pertsonen egoera halakoa baita. Adierazi du ulertzen duela EH-BILDUKo ordezkaria, baina idazkari-kontu-hartzailean aintzat hartzen duena Euskadiko araudi propiora azkar egokitu izana dela, aurretik sekula landu gabe baitzeukan, eta eskertzekoa dela. Horrez gain, aipatu du idazkaririk gabeko udala gaur egun gelditutako udala dela.

Josu Artetxe Arana zinegotziak (EH-BILDU) adierazi du bere taldeak ere eskertzen duela eta ez dela ezer pertsonala, baina kontu hau herrialdeko errealitate politikoari lotuta dagoela, estatu zentralaren mende, egoera txarragoan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

7.- Eskaerak eta galderak.- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak hartu du hitza eta adierazi du aditu duela uztaileko jolas txokoak zabalduko direla, jolas txokoak Txikiak zerbitzu berriarekin, 2016an jaiotakoentzat.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aldaketa Sozialarekin hitz egin dela, zerbitzua eskainiko dela, eta ateratzekotan ikusi beharko da kontratu txiki bat egingo den ala kontratua aldatuko den.

Jarraian, Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) legealdi honi agur esateko idatzi bat irakurtzeko nahia adierazi du, honako hau dioena:

“Esan diezaiogun adio legealdi honi, askotan gure posizioak gehiegi aintzat hartzen ez ziren edota mespretxuz baztertuak izaten zirenen ustea izan dugun legealdia, eta hau EAJren eta Aiara Batuzen aldetik hauteman dugu. Askotan izan dugu bi indar aliatuentzat ahots gogaikarri bat izatearen ustea, egotera deitu gaituzten lan eremu bat baina diskurtso politikoari dagokionean bakarrik sentitu gara, beste bi indarrekin bestelako gehiengo batzuk, bestelako alternatiba batzuk, osatzeko unean.

Aurreko osoko bilkuran Aiara Batuzek legegintzaldiaren balorazio bat egin zuen non EH Bilduk talde lanerako gaitasuna zuela esan zuen, eta orduan esan genuen bezala, bote lasterrean, guretzat elkarlana ez da arazo bat, izan ere, gai puntual batzuetan egon da, iritziak elkarbanatu ditugu eta akordioetara heldu gara, baina kontua da, esan genuen bezala, Aiara Batuzen praktika eta gogoia legealdi osoan zehar etengabe EAJrekin lerrokatzea izan da.

Oroitu legealdia gobernura sartuko zen taldeari zintzilik zeuden gaiak eguneratzeko asmoz botereen eskualdatze bat eskainiz hasi genuela, ez zen erantzunik egon eta aldi berean Aiara Batuzek legealdia EH Bilduko ordezkariari epaiketa sumarisimoak egiten abiarazi zuen, bazkari batengatik, ordenagailuengatik... tira. Taldeak berak aipatu du bere ordezkariak “legealdiaren azken urtean sortutako ondoez handi bat izan dutela, hurbilpena erraztu ez duena”. Seguru asko halaxe izan da, adierazgarria da hiritargoarekin elkarbanatutako udal jarduerari buruzko azken idatzia, 2019ko hauteskundeak baino hilabete lehenago egindakoaz gain, 2015ekoa dela.

Aiara Batuz negatiboki kritikatzearen inguruan, negatiboki. Hemen egunero egiten dugu politika, gure erabaki bakoitzarekin, gure posizionamendua justifikatu behar duten argumentuekin. Aiara Batuzi egindako kritikak “Aiararekin zuzenki lotuta ez dauden mozioei” buruz hitz egiterakoan ikuspegi bera ez izatearekin daude lotuta, hain zuzen ere. Hemen behin baino gehiagotan planteatu duguna da agian mozio horiek ez diotela erreferentziarik egiten Aiara gertatutako kontuei, baina gure ikuspuntuan Aiara ez da uharte bat, pertsonen eskubideen urratzeak eta ingurumenaren aurkako kalteak gertatzen diren herrialde baten, estatu baten, eta kontinente baten parte bat baizik, Altsasuko zentzugabekeria, Katalunian gertatutakoa edota Armentiko putzuekin Arabak izango duen ingurumen etorkizunaren aurrean albora geratzea ulertzen ez duen komunitate osoarentzat hain garrantzizkoak direnak.

AIARA BATUZen posizioen inguruan egindako errespetuzko kritika hauek justizia gaiak direla deritzogun horietan kokatzeko helburuarekin egin dizkiogu, ez gehiagorekin”.

Adierazi du AIARA BATUZ EAJrekin lerrokatu dela postura atsegin batekin eta horregatik EH-BILDUrentzat zaila izan dela, eta ondoeza eragin diola.

EAJk aurreko udal-arkitektoaren aurrean izan zuen jarrera salatu du, are jazarpenekotzat ere jo daitekeena. Profesional hau Alonsotegiko kereila batetik osorik atera zen, baina hala ere, bi alderdien babesarekin, neutraltasuna bermatzen ez zuten proba batzuen bidez arkitekto bat kontratatu zen. Gainera, gehitu du arkitekto berriak arkitekturari ibilbide luzea izan arren ez duela ibilbide luzeagirik hirigintzan. Gehitu du euskara ez zela kontuan hartu. Horregatik dago egin zen prozeduraren aurka, urte baterako behin behinekoa zela esateaz gain, eta honen guztiaren gainean AIARA BATUZek ez zuen ezer esan.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) jarraitu du esanez haiek gobernuan egon zirenean AIARA BATUZek EH-BILDUri kritikak egin zizkiola, baina haiek HAPO sortzeko prozesuan eta Gorobeli zegozkion gaietan parte hartzeko eskaini zietela. Gorobelen atsekabe handia dago eta EAJ eta AIARA BATUZ alderdiei galdetu die ea egoera honekin jarraitzeko asmoa dagoen. Ondoeza dagoela adierazi du, oraindik isunak daudela eta asistentzia teknikoa balizkoa dela Anaiarteari iruzur egin zaionean, datuak manipulaturaz kudeaketa plana aldatzeko. Adierazi du Aiarak Anaiartean % 45eko ordezkariak izanik, saiakera txiki batekin lortuko lukeela asistentzia tekniko hau ez jasotzea.

Esan du gaztelekuaren gainean bakarrik deitu dituela hitz egitera AIARA BATUZ taldeak.

Azpimarratu du Aiaran gauzak aldatzeko beharra dagoela, eta aldaketak egon diren momentu bakarra beraiek gobernuan egon direnean izan dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza esateko EH-BILDUKo ordezkariaren mintzaldiaren arabera dirudienez hauteskunderen ostean sartu diren pertsonak egiteko handia dutela, baina haiek beren funtzioa bizilagunek esandako lekuan beteko dutela. EH-BILDUK gehitu du autokritika ere egin behar dela eta akordioak oposizioarekin landu.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak hartu du hitza (AIARA BATUZ), adierazteko aurkeztu diren mozioen inguruan ez duela sakonduko. Gobernuan zegoenean EH BILDU erasotua izaten zenaren inguruan, adierazi du EAJk haien berbera bizi izan duela, eta berak ez duela eraso deitzen baizik eta presioa, eta EAJ beti deitu izan dutela jakin behar zuen gai baten aurrean, EH-BILDUK deiak egiten zizutenekin egin duen bezala.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH BILDU) adierazi du ez dela haiekin bezain beste kreditu egon, lehen behin eta berriz banatzen zirela aldizkariak eta orain, aldiz, publikoki agertzeari utzi zaiola.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du webgunean dena egiten dela publiko, eta egia dela aldizkariak ateratzeko gai izan ez badira denbora faltagatik izan dela, baina presio bera egin dutela bi taldeekin.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) jakinarazi du berarekin ez dela hainbeste komunikazio egon.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du EAJrekin egin dituzten dei guztiak haiekin ere egin ahal zituztela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du EH-BILDU gobernuan zegoenean akordioak haiekin zirela eta EAJ-PNVri ez zitzaizkiola jakinarazten, eta era berean EAJ-PNVk gobernatu duenean akordioak talde politiko honekin zirela. EH-BILDUK HAPO egiteko prozesuan eta Gorobeli buruzko gaietan parte hartzeko proposatu izanaren inguruan esan du ez zela horrela izan, baizik eta haiek aurrekontuak onartzea negoziatu zutela HAPO egiteko prozesuan eta Gorobeli buruzko gaietan parte hartzearen truke. EAJ-PNVrekin bezala, Administrazio Batzordeen babeserako lanpostu bat sortzea eta gerakinaren kargura Administrazio Batzordeei ekarpena handitzea negoziatu da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du AIARA-BATUZ taldeak Aurrekontuari emendakinak aurkeztu dizkiola.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du hala ere ez dela EAJ-PNV jendaurrean kritikatu.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) errepikatu du ezin izan dutela argitalpenik egin, baina argitalpenaren helburua ez dela eraso, bere taldea burutzen ari den lan bat

jakinarazteko forma bat baizik. Gehitu du bere taldea ere Gorobelerako kontratatu zen talde teknikoaren aurka zegoela, baina Batzordean alde bozkatu zela.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du Aiarak duen % 45eko parte-hartzea egonik, gogoia egon balitz negoziatu egin zitekeela talde hau ez kontratatzeke, kontuan hartuz pertsona honi buruz egin diren salaketen larritasuna (aplikatu behar ez zen dekretu batean babestuz datuak manipulatu dituela). Gehitu du Gorobelek bi urte daramatzala geldirik.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) berriro esan du % 45ekkontra eta gainontzekoak alde bozkatu zutela. Gehitu du zezenari dagokionez jada idatzi bat igorri dela Anaiartera haien posizioaren berri emateko.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU), bestalde, Sustapen Ekonomikoaren Batzordea legealdiko lau urte hauetan batu ez dela esan du.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) Gorobelen inguruan esan du horrela dagoela egin behar zena egin ez delako, baina era horretan, kudeatzailearen figura aurrerapauso bat izan zela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Gorobelego erabakiak gehiengo bidez hartzen direla, eta Udal edo Administrazio Batzorde bakoitzak bere argumentuak eman zituela eta horren arabera bozkatu zela, eta Aiarak ezin duela bere irizpideen araberrako botoaren zentzua inposatu.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) zalantzan jarri du benetan zegoena azaldu zenik.

Nerea Goiti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) hartu du hitza, adierazteko, autokritika modura, agian bata bestearengana hurbiltzeko gehiago egin genezakeela baina momentu askotan bi indarrei bidali zaizkiela akordio proposamenak eta babesak bilatu denean akordioaren bat egon dela, baina ez dela berdina izan kontrara.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du EH-BILDUREN ekarpenak gehienetan mozioak izan direla, eta ez gai konkretuen inguruko proposamenak. Gaztelekuari dagokionez gehitu du egun batean hitz egiteko hitzordua jarri zela idatziz ezer eraman ez zen arren, nahikoa sintonia baitzegoen bertan.

Nerea Goiti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du sintoniak zerikusia duela honekin: Batzorde batean gai bat aztertu eta ekarpenik ez egitean, maiz ez dakitela argi eztabaidagai den gaiarekiko zein jarrera duen AIARA BATUZek.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) jakinarazi du eskertzen duela Batzordeko botoaren zentzua adieraztea, horretarako dela beti egiten ez den arren.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi nahi du oso itsusia iruditu zaiola EAJ-PNVren bideo bat, non talde horrek egin ez dituen zenbait gauzaren egilea dela esaten den. Gorobelego ur hornidurari egiten dio erreferentzia, berak eraman omen zuen Aldundiarekin negoziaketa guztia, eta bi urteren ostean % 30 eta % 70eko finantzazioa lortu zen. Eta kontsultategiari eta botikinarri buruz ere, zeina aurreko legealdian burutu zen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Luiandoko Parke Linealean bezala dela, eta kontsultategiari dagokionez eraikina eta aurreproiektu bat soilik zeudela erositia.

Josu Artetxe Arana zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du haiek lau urtetan Udalbatzaren LZ onartuz gatazka bat konpontzea lortu zutela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du bere ustez ere orain dela zortzi urte aldaketa bat gauzatu zela, baina aldaketa hau gehiengo osoa desagertu zelako gertatu zela, eta honek eztabaidatzeko beharra zekarrela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza Udalbatza osoari egindako lana eskertzeko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura hogeiak eta hamahiru minutu direnean, eta aztertutako gaiak eta ebatzitakoak egiaztatzeko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemeretzi maitzaren hamahiruan.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.:Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.:M^a Carmen Rojo Pitillas.